

CABO DELGADORI BEGIRA

Mozambikeko iparraldeko probintzia honek krisi humanitario latza bizi du

Orain bost urte, 2017ko urrian, Mozambikeko iparraldeko Cabo Delgado probintzian hasi zen gatazka armatuaren ondorioz ia milioi bat pertsonak beren bizilekua utzi behar izan dute. Desplazatuak kopuruak %20 egin du gora aurtengo lehen seihilekoan, eta 946.508ra iritsi da.

Aitor Zabalgogazkoa kazetariak gertutik ezagutzen du hango egoera. Mugarik Gabeko Medikuen (MSF) zuzendari orokorra izan zen, baita misio-burua eta erakunde Larrialdietako Unitateko arduraduna ere behin baino gehiagotan. Eskarmentu handia du Iraken, Afganistanen, Sirian, Hego Sudanen edo Kongoko Errepublikan Demokratikoan. Gaur egun, MSFko Larrialdietako Unitateko arduraduna da, eta berriki itzuli da Mozambiketik.

 **GATAZKA** / Ainara Lertxundi

Milioi bat inguru pertsonak ihes egin behar izan dute Mozambikeko iparraldean azken bost urteetako biolentziaren ondorioz. Mugarik Gabeko Medikuen gobernuz kanpoko erakundeak egoeraren larritasunaz ohartarazi du, bost urteko gatazka armatuaren ostean, herritarren osasun fisiko eta psikologikoa jokoan baitago.

GAUR8 berarekin mintzatu da herrialde afrikar honen eta bereziki Cabo Delgadoren egoeraren berri izateko.

DISKRIMINAZIOA ETA BAZTERKETA

Mocimboa do Praian sortu zen Cabo Delgadoko hainbat herritan erasoak egin dituen talde jihadista. Islama arautzeko Estatuaren erakunde ofizialeatik aldendu egin zen haiekin bat egiten ez zuelako. Gobernuaren kontrako narratiba du

eta kopuruz talde txikia bada ere, Estatu Islamikoarekin loturak ditu. Armadari armak eta herritarrei elikagaiak lapurtzetik bizi da. Dena den, azken bost urte hauetan, jihadistak erasoek 4.300 hildako baino gehiago eragin dituzte.


«Gatazka guztiek bezala, jatorri konplexua du. Batetik, diskriminazio eta bazterketa arazo bat dago. Cabo Delgado probintzia hiriburutik, Maputotik, bi mila kilometrora da-

go. Inbertsio falta eta bazterketa salatzen dute biztanleek. Duela hamar urte gasa aurkitzeko prospekzioak hasi ziren Cabo Delgadon. Baliabide natural honen ustiapena komunitatearen onerako izango zela pentsatu zuten, baina ez da halakorik gertatu», azaldu du Zabalgogazkoa.

Hiru mila soldadu afrikar baino gehiago, Ruanda eta inguruko herrialdeetakoak, zabaldu ziren iaz Mozambikeko Armadari talde armatu honi aurre egiten laguntzeko. Hala, Estatu Islamikoaren taldeari leial zitzaizkion jihadistak probintziaren hegoaldera bultzatu zituzten, eta ordura arte erasanik izan ez zuten eremueta iritsi ziren.

«Muturreko biolentziak eragin itzela du herritarrengan. Ia milioi bat pertsonak ihes egin behar izan dute talde armatuaren erasoengatik. Hurbilekoen hilketaren lekuko izan dira

Ezkerretik eskuinera, Nazario Jaime medikua gaixo bat artatzen MSFko klinika mugikor batean; anbulantzia batek jasandako erasoak Muatiden; MSFk banatzen duen uraren zain Muedan, eta desplazatu talde bat kamioi bati itxaroten. Tadeu ANDRE - Paulo MILANESIO - Igor BARBERO | MSF



herritar asko. Senideak eta lagunak nola hiltzen zituzten, burua nola mozten zieten ikusi dute. Bortxaketen biktimak edo lekukoak ere izan dira asko. Haurrak beren borondatearen kontra errekrutatu dituzte. Etxeak eta bestelako azpiegiturak erre egin dizkiete. Gatazkaren ondorioz baliabideak galdu dira, hezkuntza sistema geldirik dago eta gutxieneko osasun zerbitzuak eten egin behar izan dituzte Cabo Delgadon. Pertsona askok beren bizilekua behin baino gehiagotan utzi behar izan dute. Traumatizatuta daude. Nazioarteko komunitateak babestu beharko lituzke», adierazi du Iheslarienezako Nazio Batuen Goi Mandatariaren bozeramailea den Matthew Saltmarsh.

«Azken eraso horietan desplazatutako pertsonen beldurtuta eta goseak daudela jakinarazi diote Nazio Batuen Goi

Zabalgogezkoak azaldu duenez, «ihes egindakoen bizi baldintzak, behin-behineko kanpalekuetan eta aire zabalean, oso kaskarrak dira, eta horregatik, batzuek beren herrietara itzultzeko hautua hartu dute»

Nazio Batuetako Goi Mandatariak kezka azaldu du, itzulera horiek baldintza egokietan egiten ez badira arriskutsuak izan daitezkeelako

Mandatariari. Ez dute botikarik, eta pilatuta bizi dira, lauz-pabost familia etxe berean. Batzuek kanpoan egiten dute lo, aterperik gabe. Pribatutasunik ezak eta gaueko hotzak eta elementuekiko esposizioak kezka gehigarriak sortzen dituzte segurtasunari eta osasunari dagokienez, bereziki ema-

kumeentzat eta haurrentzat», gaineratu du.

BIKTIMEN LEKUKOTASUNA

Berrogei kilometroko ibilaldiaren ondorengo nekeak ez du Maria Lourençoren zirrara arintzen, bi egun lehenago bere herriko bi gizonen buruak urmael batean ebakita ikusi zituelako. Mozambiqueko iparraldean den herrixka duela bost urtetik behin eta berriz jo du indarkeriak, eta talde armatu jihadistaren eraso horren ondoren, 60 urteko emakumeak ihes egin du, bere zortzi alaba eta hainbat bilobarekin, gertuko Chiure hirira. «Bi gizoni burua moztu diete», esan dio AFP albiste agentziari helmugara iritsi eta gutxira. «Gero, biktimetako baten emazteari eman zizkioten buruak, agintariei aurkez diezazkien», gehitu du. «Beraien buruak ikusi ditut», errepikatzen du.

Elias Mariok, 36 urteko base-rritar batek, Katapuatik ihes egin zuen emaztearekin eta bi seme-alabekin. Bizikletaz lagunduta, aitortu du ez dakiela nora jo.

Plazan, AFPko korrespontsal batek 500 desplazatu inguru kontatu zituen. Katapuako landa eremutik iritsi ziren, eta izarren azpian edo dendetako toldoen azpian igaro zuten gaua. Xavier Jamal eskualdeko administrazioburuak aditzera eman zuenez, Katapuako eliza erre eta Montepuezetik gertu errubi meategi bati eraso zion talde berekoak ziren erasotzailak. Pasa den urriaren 20an, Gemfields Britainia Handiko taldeak Montepuezen ustiatzen duen errubi meatzean jarduera guztiak eten zituen.

Aldi berean, desplazatueta-ko batzuk beren herrietara itzultzeko hasi dira orain seguruagoak direlakoan eta kanpa-





lekuetako bizi baldintzak oso kaskarrak direlako.

ITZULEREN SEGURTASUNA

NBEko Goi Mandatariak kezka azaldu du itzulera horiek askotan ez direlako baldintza egokietan egiten. «Baldintzak egonkortu baino lehen jatorrizko eremuetara itzultzen jarraitzen badute, arriskutsua izan daiteke. Lekuz aldatutako familien itzuleren alde nago, baldin eta borondatezkoak, seguruak, informatuak eta duinak badira, eta baldintzak egokiak direnean eta oinarritzko zerbitzuak berrezarri direnean egitekotan. Baina dena galdu duten pertsonak zerbitzuak eta laguntza humanitarioa hein handi batean eskuragarri ez dauden eremuetara itzultzen ari dira», ohartarazi du.

Zabalgogezkoaren hitzetan, ihes egindakoen bizi baldintzak «oso kaskarrak dira, horregatik, batzuek beraien herrietara itzultzeko hautua hartu dute. Batzuk errefuxiatuentzako eremuetan zeuden,

baina beste batzuk azpiegiturarik gabeko behin-behineko kanpalekuetan. Jendeak itzuli egin nahi du, nahiz eta etxea erreta egon. Kanpalekuetan laguntza humanitarioaren mendeak dira erabat, Estatuak eta gobernuak kanpoko erakundeek banatu diezaieketen janariaren zain egon behar dute, ez baitute lantzeko lursailik, inolako helburu edo jarduera ekonomikorik gabe. Baldintza horietan, nahiago dute itzuli», azaldu du.

Desplazamenduekin batera, nabarmentzekoa da Cabo Delgadon GIBaren prebalentzia %13koa dela. Mozambike-

MSFko medikuak botikak banatzen Nasitenge herrian. Alboan, Mozambikeren MSFko koordinatzaile den Sara Miro. Igor BARBERO | MSF

«Batzuk mutu gelditu dira itzultzean beren etxea txikituta ikustean. Mozambikeren lanean nagoenetik ez dut halakorik ikusi», aitortu du Sara Mirok, MSFko koordinatzaileak

Mocimboa do Praian sortu zen hainbat herritan erasoak egin dituen talde jihadistak. Islama arautzeko Estatuaren erakunde ofizialetatik aldendu egin zen haiekin bat egiten ez zuelako



ko beste probintzia batzuetan, %29ra iristen da.

«Gaixotasuna duen pertsona bati osasun zentroa suntsitzen badiote eta lekuz mugitu behar badu, tratamendua eten behar du eta beste osasun zentro bat bilatu, tratamenduekin jarraitu ahal izateko», gaineratu du Zabalgogezkoak.

«Gauza bera gertatzen da beste gaixotasun batzuekin, hala nola tuberkulosiarekin, malariarekin... Desplazatuak iristen ari diren herrietako osasun zentroak ez daude prestatuta normalean artatzen duten biztanle kopurua halako hiru edo lau hartzeko. Sargaiak eta langileak birkokatzea erronka handia da».

ITZULTZEN ARI DIRENAK

Sara Miro MSFko koordinatzailea da Mozambikeren. Hamar urteko ibilbide luzea du laguntza humanitarioaren eta garapenaren alorrean. Beste herrialde afrikar batzuetan, Ekialde Hurbilean eta Hego Amerikan ere lan egin du. Mo-

zambikeren dela, GAUR8 berarekin mintzatu da bideo dei baten bitartez.

Egungo egoera deskribatzeko zer hitz erabiliko lituzkeen galdetuta, «konplexua eta metagarria dela esango nuke, gatazka duela bost urte hasi baitzen, baina azken hiru urteetan gogortu egin da. Gatazka armatuaz gain, probintzia honek hondamendi natural zikloak jasaten ditu. 2018an, 'Kenneth' zikloak kalte masiboak eragin zituen. Hau zerbait berria izan zen, zikloi batek eskualde hau kolpatzen zuen lehen aldian izan zela, normalean zikloien eraginpeko eremuak herrialdearen hegoalderago daudenak izaten dira. Horrek egoera berri bat eragin zuen Gobernuarentzat, baita osasun zerbitzuentzat ere. Hori guztia pertsonen bizipenetan piltzen doa».

Eraso jihadistek eragindako desplazamenduei dagokionez, joan-etorriak homogeenak ez direla azaldu du: «Familiako

kide guztiak ez dira elkarrekin joaten. Kasu askotan, familiak banandu egin dira. Helduek leku batera joan behar izan dute lan bila eta haur eta emakumeek beste batera. Gertatu da halaber talde armatuek familia, herri edo eremu oso bat atxiki izana, eta halakoetan, eremu geografiko horretan harrapatuta geratzen dira; atera eta irten ezinik».

ZIURGABETASUNA

«Ziurgabetasunez bizi dira, ez dakite zer gertatuko den; izan ere, baliteke astebetean erasorik ez izatea, eta gero indarkeria larriagotzea. Eta lekualdatzen diren tokian, ez dute lanik, ezta lurrik ere lantzeko. Bi milioi pertsonako probintzia bati buruz ari gara, azken bost urteetan biztanleriaren erdia desplazatu den probin-

Mirok ohartarazi duenez, «ez dakite zer gertatuko den; baliteke astebetean erasorik ez izatea, eta gero indarkeria larriagotzea»

Desplazamenduekin batera, nabarmentzekoa da Cabo Delgadon GIBaren prebalentzia %13koa dela. «Gaixotasuna duen pertsona bati osasun zentroa suntsitzen badiote eta lekuz mugitu behar badu, tratamendua eten behar du»

tzia bati buruz. Bere jatorrizko herriak suntsituta daude. Gobernuak adierazten dien lekura joaten dira, nahiz eta lurrak ez izan beti emankorrak edo ura duten lurrak izan arren ez duten izaten beti osasun zentro bat hurbil».

Eta nola lan egiten da egoera horretan? «Ahal dugun neurrian eta behar gehien duten komunitateak lehenesten. Beharrak ebaluatzen ditugu, se-

Desplazatutako familia bat
Eduardo Mondlane
kanpalekuan, Mueda
herriaren kanpoaldean.
Alboan, Aitor
Zabalgogezkoa, MSFko
ordezkaria
GAUR8



gurtasunaren aldetik sartzerik dugun ala ez. Gatazka hasi zenean, probintziaren hegoaldean geunden gehienbat. Azken hiru urteetan, berriz, iparralderantz mugitu gara, zeren desplazatutako asko itzultzen ari dira, baina itzultzen direnean, ez dute etxea bere horretan aurkitzen, txikituta baizik». Ur horniketetan eta saneamendu sarean ari da lanean MSF eta itzultzen ari direnei sukaldeko eltzeak, platerak eta mahai tresnak, mantak... ematen dizkiete, elikadurakoak ez diren elementuak, «hobeto bizi daitezen, ezer gabe itzultzen baitira».

LAGUNTZAREN MENDE

Osasunaren alorrean, berebiziko garrantzia ematen dio erakundeak buruko osasunari, are gehiago gatazka armatu baten testuinguruan. «Batzuk mutu gelditu dira itzultzean etxea txikituta ikustean. Mozambiken lanean nagoenetik ez dut halakorik ikusi. Malariarekin edo GIBarekin ez bezala, herrialdean ez daude eskuragarri sendagai psikiatrikoak eta ez da nahikoa psikoterapia egitearekin

traumari aurre egiteko. Sufritzen ari dira eta haien osasun mentalari eragiten dio».

«Ihesaldiarekin, norberaren arlo sozial eta familiarra aldatu egiten da. Egun batetik bestera ez duzu estatus bera, zure etxea. Bat-batean, leku berri batera joan behar duzu lurrik gabe bizitzera, ezer landatu gabe, zeure burua zaindu gabe, gobernuz kanpoko erakunde bat hilean behin zuri janaria ematera etortzeari muzin egiten diozu. Kontua ez da soilik zure bizilagunak nola hil zituzten edo zure bizitzaren parte izan diren egiturak eta tokiak nola erretzen zituzten ikustea, baizik eta beste batzuen mende zaudela sentitzea, gobernuak eta gobernuz kanpoko erakundeek eskaintzen duten laguntza humanitarioaren mende zaudela, eta ezin duzula zure familia zeure kabuz aurrera atera».

Mirok ohartarazi duenez, «bost urteko muga igaro dugu eta epe laburrean ez da irtenbiderik ikusten. Gatazka kronifikatzeko arriskua dago, baita komunikabideen nahiz agentzien agendan gehiago ez agertzeko arriskua ere».

